

ITSASU ITXASSOU

6

HERRI ALDIZKARIA **JUILLET 2022** UZTAILA BULLETIN MUNICIPAL



Beroegi. Idorregi. Sobera energia erretze kaltegarri. Hemen guk dugu hasi behar aldatzen mundua doan bidetik. Beti zuhurrago. Beti kolektiboago. Sekulan baino baikorrago. Uda eder bat daizuela.

Trop chaud. Trop sec. Trop gourmand en énergies fossiles. Ici, c'est nous qui devons commencer à changer le monde comme il va. Plus de sobriété. Plus de collectif. Beaucoup d'enthousiasme. Très bel été !

ÉDITO

Auzapezaren hitza



Berri ona Itsasuko tren geltokitik jin zaigu 2022ko uztailean. Geldialdiak eginen dituzte berriz treinek gure herrian. Ehunka herritarren eskakizuna izan zen treinbidetako arduradunei eta Akitania Berriko Eskualdeko hautetsiei. Delako hauek, behin eta berriz lekuan berean egonik, baiezkoa eman diote itsasuarren eskakizunari.

Uztailaren 2az geroztik, Baiona eta Garazi artean ibiltzen diren tren guziak gelditzen dira Itsasuko geltokian, bidaiariak hartzeko edo uzteko.

Bistan da ez dituela treinen geldialdiak konpontzen Itsasuko harat hunatan eskas eta enegu guziak. Errexegi liteke. Erakusten du halaere herritarrak eta hautetsiak bestela gogoetatzten hasten direla ibilmolde edo mogikortasunaren gaiaren itzulian. Ordu da baztertzten hasteko ibilaldi guzien otop egitetik.

Eztabaida handirik ez da, gurea bezalako herri barreiatu eta malkartsu batean : beribilak nekez ordain litezke karrikatik kanpo. Horren gatik egiten dira mendiko bideen mantenu lanak. Horregatik ere, Herriko Etxeko CCAS zozial batzordea bera elkartasunezko takzi baten proposatzen hasi berri da, beren etxetarik hurbilean ibili behar duten herritarrentzat eta berenber ibiltzeko molderik ez dutenentzat.

Bestelakoa da karrika edo hiritartuago den herriko eremutan. Oinezkoen eta txirindularien ibilbideak sustatu eta gerizatu behar dira, behar orduan aspaldiko ohidura zenbait inarrosiz.

Hortarako, lehen bait lehen herri erdiko karrika batzu sentsu bakar ezarri behar litezke. 2022ko uda huntan berean entseguak abiatzeko dira, probetxuak baieztatzeko eta eneguak oneratzeko.

Mogikortasunaren gaietan, etxebizitzaren sailean bezala, ohidurak aldatzeko garaian gira. Herriko Etxetik ere proposatu nahi dautzuegu gizarte aldaketa saihets ezinaren lokomotiban igaita.

Mizel HIRIBARREN
Itsasuko auzapeza

Itsasuko Herriko Etxea - Mairie d'Itxassou
05 59 29 75 36 - Email : accueil@itxassou.fr
Site : www.itxassou.fr

Mise en page / Diseinua / Itsasuko Herriko etxea
Impression sur papier recyclé : Imprimerie Arizmendi

La bonne nouvelle de ce début juillet 2022 concerne l'arrêt du train en gare d'Itxassou. Des centaines d'itsasuar avaient porté la revendication auprès des responsables des chemins de fer et auprès des élus de la Région. Ces derniers, après plusieurs déplacements sur site, ont arbitré la décision favorablement. Depuis le 2 juillet 2022, tous les trains TER marquent l'arrêt en gare d'Itxassou, pour déposer ou embarquer des voyageurs.

Bien sûr que le retour du train en gare d'itxassou ne règle pas tous les problèmes de déplacements sur la commune. Ce serait trop simple. Il marque néanmoins la volonté partagée par les habitants et les élus de considérer autrement les modes de déplacements, et de commencer à sortir du tout voiture, toujours et partout.

Sur une commune rurale comme la notre qui compte beaucoup d'habitations dispersées sur les quartiers et sur les secteurs de montagne, la voiture reste le moyen de déplacement incontestable pour les itsasuar. La commune investit d'ailleurs régulièrement dans l'entretien de ce réseau routier. Et au-delà, le service social CCAS de la mairie vient lui-même de lancer l'offre de taxi solidaire aux habitants qui ne disposent pas de moyens de déplacements.

Les parties plus urbanisées de la commune présentent une toute autre configuration. Les déplacements de proximité à pied et à vélo doivent être favorisés et sécurisés, au risque de bousculer quelques vieilles habitudes (bien ancrées). Il s'agit en particulier d'engager au plus vite des évolutions du sens de circulation dans le centre bourg gaineko karrika et sur les principales rues attenantes. Seuls les tests grandeur nature prévus pour cet été 2022 permettront de confirmer les effets positifs et de contenir les impacts négatifs.

Sur les questions de mobilités, tout autant que sur les questions de logements, nous sommes à une époque charnière, et nous vous proposons de ne pas être dans le dernier wagon de cette mue incontournable.

Très bel été.

Mizel HIRIBARREN
Maire d'Itxassou

INTRAMUROS



Les nouvelles et événements d'itxassou peuvent vous parvenir à toute heure. Il suffit de télécharger l'application intramuros sur votre téléphone portable sans oublier d'activer la notification.

<https://appli-intramuros.fr/>

Telekarga zazu aplikazione hori zure telefona mugikorrean. Herriko berri eta gertakari guzien jakinean izanen zira orenez oren.

AURKIBIDEA / SOMMAIRE

Auzapezaren hitza / Le mot du Maire

BERRIAK / ACTUALITES

Treina Itsasuko geltokian / Le train s'arrête à nouveau en gare d'Itxassou	4
Etxauriko suteak / Incendies sur Etxauri	5
Bide berritzeak / Travaux sur chaussées	6
Borddako bidean obrak / Travaux sur Borddako bidea	7
Gerezi urtea / Bilan des récoltes	8
Gerezi besta / Fête de la cerise	9
Mina ziloetan gertatua / Événement des mines	10
Lurpearen baliatze garaia / Périodes extraction minière	11

HIRIGINTZA / URBANISME

Hirigintza plana gelditua / Arrêt en CAPB du PLU	12
Inkesta publikoaren garaia / Le temps de l'enquête publique	13
Hirigintzan aterabide berriak / alternatives en urbanisme	14-15
Balaki : pilota eta gehiago / Balaki pelote et autres projets	16-17
Elkargunea / Un carrefour de rencontres et d'échanges	18
Arroka : ezkalada elkarte / Arroka : association d'escalade	19

INGURUMENA / ENVIRONNEMENT

Saiak GPSekin / les vautours pucés	20
Erreka bazterrak zaintzeko / Entretien des cours d'eau	21
Pankarta berriak mendian / nouvelle signalétique en montagne	22

EUSKARA

Musika tailerrak euskaraz / ateliers musique en basque	23
--	----

ZOZIALA / SOCIAL

Elkartasun takzia / Taxi solidaire	24
Alokairu zozialak gazteentzat / Logement social pour les jeunes	25

HEZKUNTZA / EDUCATION

3 eskolen oihartzunak / échos des 3 écoles	26-27-28
--	----------

HAURTZAROA / ENFANCE

Lekuonean haurtzaindegia / La crèche Lekuonean	29
--	----

ELKARTE BIZIA - VIE ASSOCIATIVE

Elkarteen aurkezpenak / La parole aux associations	30-36
--	-------

KULTURA / CULTURE

Jondoni joani eta pintxo gaualdiak / Feu de la St Jean	37
Egutegia / Animations à venir	38

OPOSIZIOAREN IRITZIA / EXPRESSION DE L'OPPOSITION

LEKUKOTASUNA / TEMOIGNAGE

Ibai Etcheverria	40
------------------	----

Bide zenbait sentsu bakar erabiltzaile guztiak gerizatzeko

Itsasuko Herriko Etxeak errebide batzu ezarriko ditu sentsu bakar, beribil trafika arriskutsua den leku batzuetan.

Helburu lehena oinezko ibiltarien eta txirrindularien harat hunatak gerizatzeko, eta ondotik beribilen ixuria erreteak.

- Elizako auzoan : sentsu bakar Haleriako bide kurutzetik Atharriraino

- Oilomokoneko etxandanan : sentsu bakar egoiliar gehienek erabiltzen duten moduan

- Karrika nagusian : sentsu bakar Balakitik gaineko plazaraino, gerizatuz oinezkoen eta txirrindularien ibilbideak

- Karrika nagusian : sentsu bakar gaineko plazatik Larrondoko bideari buruz, Iguzkian barna, Balakiraino, gerizatuz oinezkoen eta txirrindularien ibilbideak

- Karrika nagusian : sentsu bakar sanokitik erloetarat, gerizatuz oinezkoen eta txirrindularien ibilbideak

Des voies à sens unique pour sécuriser tous les usagers

La commune d'Itxassou s'apprête à lancer l'expérimentation de mise en sens unique des voies sur plusieurs secteurs à fréquentation automobile importante.

L'objectif premier est de sécuriser les déplacements à pied et à vélo, avant de renforcer la fluidité du trafic automobile.

- Quartier de l'église, mise en sens unique du carrefour d'Haleria vers Atharri

- Lotissement communal Oilomokoena : sens unique confortant la pratique des résidents

- Quartier du bourg : mise en sens unique de Balaki au fronton, avec aménagements pour piétons et vélos

- Quartier du bourg : mise en sens unique du fronton vers Larrondoa, Iguzkian et Balaki avec aménagements pour piétons et vélos

- Quartier du bourg : mise en sens unique du carrefour de Sanoki vers la résidence Erloeta (route de l'aérodrome) avec aménagements piétons et vélos

L'approvisionnement en matériels déterminera les aménagements.

treina berriz itsasuko geltokian gelditzen da



Uztailaren 2tik aintzina baizik ez da hasi gelditzen Itsasuko geltokian Garazirako treina, bere joan jin guzietan. Urtean bi aldiz baizik ez ditu aldatzen SNCFak bere ordutegiak, eta Itsasuko geldialdian xahutzen diren bizpalau minutek treinaren ibilbide guziko ordutegia mogitu omen dute.

Baiona Garazi arteko TER tren bidea berriz ideki da bere osoan 2022ko uztailaren 11an. Sei hilabete iragan dira uholdeek funditu zuten guziaren antolatzen, zernahi desmasia egin baitzuen Errobiko urak 2021eko abendoan, bereziki burdin bide azpiko legarrak eramanez.

2010garren urtetan, Akitaniako Eskualdeak zuen dirutza borobila engaiatu Baiona Garazi burdin bidearen berritzen, ehun ta zenbait urte baitauzka burdin bide hunek. Itsasuko geldialdiaren erabakia ere Akitania Berria Eskualdeak du hartu, herritarren eskakizunari ihardetsiz. Jacky Emon garraioetaz arduratzen den Charentetako hautetsia etorri da bizpahiru aldiz SNCFko arduradunekin herritarren ordezkarien eta herriko hautetsien mintzatzerat.

Dena egiteko dela ariko dira gogo ezkorak. Nola motibatuko dira itsasuarrak treinaren hartzerat ? Ez ote da baitezpadakoa lanerako joan jinentzat egokiak diren ordutegiak eskatzea herritarrentzat ? Bidai sariak ere treina hartzeko gutizia emateko modukoak ez ote dira eskatu behar ? Tren geltokia bera ongi egokitzea ez al zaio eskatu behar mogikortasuna kudeatzen duen sindikatari, baita txik txak autobusen ordutegi eta ibilbideekin ongi loturik ezartzea.... Gogo baikorragoek aitortuko dute gehiago edo dena posible dela treinaren geldialdiak bermatuak diren ordutik.



le train s'arrête à nouveau en gare d'Itxassou

Ce n'est que depuis le 2 juillet 2022 qu'on voit la zezette marquer un arrêt systématique en gare d'Itxassou, tout simplement parce que la SNCF renouvelle ses horaires tous les semestres, et que forcément la halte supplémentaire de toutes petites minutes sur notre commune oblige à modifier les départs arrivées sur plusieurs autres gares de cette ligne 54.

La ligne de TER Bayonne Saint Jean Pied de Port a repris du service le 11 juin 2022 entre Cambo et Garazi, après plus de six mois de travaux pour conforter les voies qui avaient subi de lourds dommages lors des inondations du 9 décembre 2021.

La région Nouvelle Aquitaine s'était fortement impliquée dans les années 2010 et 2015 pour investir généreusement dans la réfection de cette voie de chemin de fer plus que centenaire, et c'est encore la région qui s'est engagée cette fois encore à répondre positivement à la demande citoyenne et communale des itsasuar. Le vice président délégué aux transports, le charentais Jacky Emon, s'est déplacé sur les lieux à plusieurs reprises avec les responsables de la SNCF pour rencontrer les élus de la mairie d'Itxassou.

Tout reste à faire diront les pessimistes. Comment motiver les itsasuar à voyager par le train ? Insister pour que les horaires conviennent aux salariés qui veulent rejoindre leur lieu de travail, revendiquer des prix de billets accessibles et incitatifs. Mobiliser le syndicat des mobilités pour accompagner l'aménagement de la gare et harmoniser les circuits du txik txak et du train..... les plus optimistes reconnaîtront que tout est possible dès lors que le train s'arrête en gare d'Itxassou.



Etxauriko suteak Etxauri en proie aux incendies



Uholdeek makurrak egin zituzten Itsasun joan den abendoan eta urtarrilean. Su bortitzek dituzte beldur eta kalte handiak egin Etxauri aldean. Itsasu eta Etxauri parekatzeko bidean elgarren berri lehenik eta elkartasunak ondotik.

Etxauriko ibarrak sute bortitzak jasan ditu 2022 ekain erditan, Irunatik beheragoko Nafar eremuetan 10 000 ektarea kixkali zirelarik.

Herri andana bateko jendetza guzia beren etxetarik urrundua izan zen sua ezin menperatuz ari baitziren sokorri zerbitzuak.

Zorionez kalterik ez da egon jendetan, baina beldur handiek bizitzale guzientzat eta kalte larriak laborarientzat zereal zelaietan eta mendietan, Udako sasoina hasi aintzin erre kixkaili belztuak gelditzen dira bazter guziak.....

Les inondations ont provoqué des dégâts à Ixassou en décembre et janvier dernier. Ce sont les incendies en vallée d'Etxauri qui ont effrayé les populations et calciné les cultures et les flancs de côteaues. Etxauri et Ixassou portent ensemble un projet de jumelage. Il convient d'échanger des informations avant d'organiser des solidarités.

La vallée d'Etxauri au sud de Pampelune a subi des incendies qui ont tout embrasé en pleine canicule du mois de juin. Quelques 10 000 hectares de champs de céréales et de surfaces de montagnes sont partis en fumée en Navarre.

La plupart des habitants des villages de la vallée ont dû être évacués en urgence parce que les secours n'arrivaient pas à maîtriser le feu nous a rapporté Idoia Aritzala Etxarren maire d'Etxauri.

Par chance, aucun dommage humain n'est à déplorer, mais beaucoup de frayeur pour la plupart des habitants, et des pertes importantes en particulier pour les agriculteurs de cette région qui cultivent des céréales à paille. A quelques jours d'un été qui s'annonce chaud à très chaud, nos amis d'Etxauri auront besoin de beaucoup de courage pour continuer à vivre dans ce paysage de décor calciné.



bide berritzeak aurtengo primaderan

Le territoire de la commune d'Ixassou est traversé par des routes départementales mais son réseau viaire est principalement constitué de routes communales pour une longueur cumulée de plus de 40 kms. La commune est responsable de l'état de cette voirie et veille à son entretien régulier.

Pour cette année 2022 la Commune a défini un programme important de réfection des chaussées pour un marché HT de 458 087 €.

Les travaux ont concerné :

Quartier **Berandotz** (depuis Predonia jusqu'à Oihanburuko borda) : 4.3 km de travaux préparatoires, de reprise des enrobés et de mise à niveau des accotements. A noter la difficulté de ce chantier qui a imposé la fermeture de la route en journée et nécessité une véritable technicité de la part des chauffeurs.

Quartier **Laxia** (depuis le Pont d'Indianonia jusqu'au carrefour de la route de Xahittoa) : 700 mètres d'enrobés et reprise des ralentisseurs.

Quartier **Olhasur** (Halkeiko bidea) : reprise des enrobés sur 760 mètres.

Agerreko bidea : reprise de la chaussée sur 650 mètres et traitement des eaux de ruissellement qui impactaient les résidences du haut d'Irigoitia.

Réfection en enrobé du parking de **Peruskinia** (logements communaux quartier de l'église)

Reprise de la voie de **Berrartia** sur une longueur de 650 mètres et intervention à **Larrainarteko** Bidea avec réfection de la chaussée en bicouche sur 300 mètres.



Travaux d'enrobés sur Berandotzeko bidea

réfection des chaussées



Itsasuko herria zeharkatzen duten bizpahirulau departamenduko bide badira. Halaere, herriaren konduko bideak askoz gehiago dira, 40km luzetasunetan hedatzen baitira. Herriak du bere bideen ardura osoa eta gostaia gosta jarraituki berritzen ditu funditzerat utzi gabe.

2022 urte huntan gutienez 458 087€ xahutuko dira bide berritzean, jakinik aintzineko bi urtetan deus guti xahutu dela sail hortan.

Hauexek izan dira aurtengo primaderan berritu diren bideak :

Berandotzen, Predoniatik Oihanburuko Bordaraino : 4.3 kilometretan bide apailatzeak eta gudroneztatzeak, bazterretako ezpainak lurrez betez. Obra hunek ekarri du enegu auzoko egoiliarrentzat bidea hetsirik baitzen egunaz, eta trebezia handi handia behar zuten kamiun gidariek asko leku hertsi eta kakoletan gibelka egin behar bait zuten.

Latsen, Indianoneko zubitik Xahitoko zubiraino. 700 metra bide gudroneztatze asko iturri gune sendotu ondoan.

Olasurren : 760 metra bide gudroneztatze Halkeiako bidean

Agerreko bidean : euri uren ixuriaren biltzea eta behar bezala bideratzea Irigoineko etxe batzuetarat sartzen zirenez basurak, ondotik bide parte baten sendotzea eta gudroneztatzea

Berrarteko eta **larrainarteko bide** azalen berritzea, lehena 650 metratan eta bestea 300 metratan.

Peruskineko aparkalekuaren gudroneztatzea

borddako bidean lur litatzea konpontzen chantier du glissement de terrain



Abendoaren 9 aratsaldeko euriteek zuten litatu Arrokaïn bide azpiko lurra. 7 hilabete geroago, ekainaren erditan, hasi dira hilabete bat iraun duten obrak bidea konpontzeko.

Nolaz joaten ahal da hainbeste denbora gertakaritik landa konponketa hasi aintzin ?

Litatu zelarik lurra, biharamunean berean hurbildu zen geolithe enpresa, makurrak eta arriskuak berehala haztatu zituen eta bidea beribilei ideki zuten herriko langileek auzoko herritarrek beren etxetarat hurbil ahal zitezen.

Gero jin zen ikerketa eta txostenen garai luze hura, axurantzak ere artetik agertu zirela.

Adituen bulego bat hautatu behar izan zen. Hor bertako lurrak ikertu eta azterturik, adierazi zuen nolako neurriak hartu beharko ziren litatze gune hori sendotzeko. Hamar ala hamabost metra luzeko itzeak ezarriko ziren pezoinari ongi lotuak, eta bazterreko burdin edo betunak finkatuko zituztela. Handik laster bigarren txosten batek mugatu zuen zehazki zer nolako obra egin beharko zen. Hirugarren urrats batean kausitu behar zen xantierra eginen zuen lantegi bat, guziz berezitu... azkenean ardietsi zen Ezpeletan jarria den enpresa batekin izenpetzea konbenioa.

Gutien ustean sei edo zazpi hilabete joan dira eta aspaldi berantetsiak ziren Bixkarbidia eta Gabarazaindegiko auzokideak.

Orohar, 100 000€ hurbil gostatzen zaizkio herriari ikerlanak eta hilabete beteko obrak, hiru minutuz lehertu zen pezoinarekin bermatzeko.

Le glissement de terrain de Borddako bidea dans le quartier de la gare d'Ixassou s'était produit lors de l'intense épisode pluvieux du 9 décembre 2021. 7 mois se seront écoulés jusqu'aux débuts des travaux de reprise du talus à mi-juin 2022.

Comment se fait-il que les délais soient si longs avant que les travaux ne commencent ?

Dès le lendemain du glissement de terrain, un géologue du bureau d'études Géolithe avait été convié sur place pour apprécier les dégâts et juger dans quelles conditions les habitants du quartier Bixkarbidia et Garazainania pourraient pratiquer la chaussée pour rejoindre leur domicile à voiture. Les employés communaux furent chargés de mettre en place les barrières de sécurité et les aménagements temporaires qui permettraient d'ouvrir le passage des voitures.

Ensuite ce fut le temps très long des études et des rapports incontournables, sans oublier les visites des assureurs.

Les travaux d'expertises et d'études furent confiés à Géolithe qui a un siège sur la Côte Basque. Les rapports ont défini quels seraient les travaux à effectuer en tenant compte des analyses des sols et des roches qui fondent l'assise de la route de Bordda. Il y serait réalisée une paroi clouée qui assurera la stabilité de la chaussée. Et les travaux ont été confiés à une entreprise spécialisée dans les travaux de montagne qui détient une adresse sur Espelette.

Au final six à sept mois seront passés avant que les travaux ne soient réalisés, avec les désagréments quotidiens pour les habitants des secteurs de Bixkarbidia et Gabarazainania. Le budget aura approché la bagatelle d'une centaine de milliers d'euros.

gerezi urtea le temps des cerises

Aurtengo gerezi uzta askoz hobea izan da laborari askorentzat jazkoa baino, nahiz etxalde edo iguzki alde batetik besterat diren ezberdintasunak aski ohargarriak izan.

2021ean izotzak jo zituen gerezi ondoak loretik gerezi ninika bihurtzen ari ziren unean, orduan baitituzte goizaldi hotzegiek galerazten ahal fruitu mentura guziak.

2022 urtalde huntan ere egon da izotz berankorren mehatxu hori, baina aurtengoan gerezitzeak lore betean zirelarik gertatu da eta gerezi ondoek hobeki jasan dute.

Xapata elkarteko kideek parte hartu dute Atharriko gerezi bestan ekain hastapenean, salgai ezarriz onduak ziren xapata gereziak

Bestalde elkarteak segitzen du bere dozier muntatze lana sormarkaren eskuratzeari buruz, bereziki sakonduz hemengo gerezi klaseen ezaugarrien ezagutza eta jastatze ekitaldiak antolatuz.

Jastatze ekitaldiek segituko dute 2022an eta balire zenbait itsasuar interesatuak 2023 jastaketetan parte hartzeko, jakinaraz bezate elkarteari.

Bitartean, gaztiatu nahi dugu joan den neguan gerezi ondo landareak erosi dituztenei, erne egon ditezen eta behar orduan uresta ditzaten landareak uda idorrek segitzen badu.

Gerezi landare berriak erosi nahi lituzketenei helduden neguan mana ditzatela norabide elektroniko huntarik contact@cerise-itxassou.fr



Crédit photo : Gaizka Iroz



La récolte est pour plusieurs producteurs bien meilleure cette année, bien qu'il y ait tout de même des différences importantes suivant les fermes et les expositions.

2021 avait connu un épisode de gel au moment de la nouaison des cerisiers, moment très délicat où les fleurs fécondées se transforment en cerises, et où les températures négatives sont bien souvent fatales pour la suite de la fructification.

Cette année 2022 a connu à nouveau un épisode de gelée mais celui-ci est survenu au moment de la floraison pour une partie des vergers et les arbres l'ont mieux supporté.

Les producteurs de l'association Xapata ont participé à la fête de la cerise début juin sur le marché de producteurs amenant de la cerise de la variété Xapata mûre pour le jour de la fête.

L'association poursuit par ailleurs son travail de constitution de dossier de demande de reconnaissance en AOP, notamment en travaillant la caractérisation des variétés locales et cette année par l'organisation de séances de dégustation.

Ces séances de dégustation se poursuivront en 2022 et si des itsasuar sont intéressés pour y participer en 2023 ils sont les bienvenus et peuvent d'ores et déjà se faire connaître !

En attendant, nous recommandons aux personnes qui ont acheté des plants l'hiver dernier de s'assurer qu'ils sont bien pourvus en eau notamment si nous devons traverser un été très sec.

Pour ceux qui souhaiteraient commander des plants l'hiver prochain vous pouvez envoyer votre commande à contact@cerise-itxassou.fr.

gerezi besta eguna

Arrakasta handia ardietsi du 2022ko Gerezi Bestak joan den igandean, ekainaren 5ean.

Goizetik abiatuak ziren bistariak Atharriko zelaian, Iparraldeko hirigunetarik eta kostaldetik jin zirela asko, baita Landesetarik eta Akitania Berritik.

Hogoita sei bat kintal gerezi saldu zen orotarat igande aratsalde erditako. Itsasuko etxe ekoizleak eta gerezi saltzaileak hor ziren oihalezko aterbe zabalaren azpian, xapata gerezi gordinaren aldean salgai zituztela besteak beste gerezi erreximentak, ardi gasnak, ezta eta Ezpeletako biperra.

Etxauriko gerezi ekoizleak ez dira jin ahal izan, Etxaurin berean baizuten igande hartan berean antolatua gerezi besta berezia, bainan helarazia zuten beren gerezitik. Itsasuar askok jastatu dute eta hainbeste bisitarik erosi etxerako. Itsasuarrak elkarteak antolatua zuen usaian bezala gerezi besta egun hau. 670 bazkaltiar egon dira eguerditan Ezker Paretan, tanpez bete delarik pilota lekua. Mila taloz gora saldu da otordutarik aparte, bakar bat ez omen zelarik gelditzen aratsalde erditarik berantago....

Bi urte luzeko geldialditik landa, oldar berriz abiatzen da beraz Itsasuko gerezi besta. Herriko elkarte askotako kide frangok ekarri dute laguntza berezia, ehunka laguntzaile behar baita nahitaez ostatu, sukalde, bazkari zerbitzari, merkatu mahain zaindari, dantzari eta pilotari, aparkaleku kudeatzaile eta gainerateko lan xehe eta larri guzien eramaiteko.



Etxaurin bigarren urtekotz ospatu zuten gerezi besta eta arrakasta handia ukan zuten



2022ko Itsasuko gerezi besta



fête des cerises

Affluence des grandes éditions de la fête des cerises ce dimanche 5 juin à Itsasu.

Les visiteurs arrivaient sur le site d'Atharri depuis le milieu de matinée, en provenance souvent des villes côtières d'Iparralde, ou bien encore des Landes et de la Région toute entière.

Quelques 1300 kilos de cerises ont trouvé acquéreurs pour le début d'après midi. Les producteurs fermiers locaux étaient présents sous le chapiteau, avec leur offre de barquettes de cerises xapata, de confitures de cerises, de fromage de brebis, de miel...

Les producteurs de cerises d'Etxauri n'ont pas pu se déplacer, retenus eux aussi par la fête de la cerise qu'ils avaient organisée sur leur vallée, mais ils avaient bien pu faire parvenir une bonne partie de leur production de cerises et bien des visiteurs d'Atharri sont repartis avec le cagnot sous le bras.

C'est comme toujours l'association Itsasuarrak et l'ensemble de ses sections qui avaient organisé cette nouvelle édition de la fête des cerises. 670 repas servis le midi sous le mur à gauche. Un bon millier de talo qui se sont vendus avant le milieu de l'après midi. Et heureusement des buvettes qui ont assuré du breuvage jusque tard dans la soirée.

Après deux longues années d'interruption, la fête des cerises a retrouvé un nouvel élan. Beaucoup de membres des associations du village ont contribué à la réussite de la journée, puisqu'il faut des centaines de bénévoles pour assurer les services des buvettes, du repas, des cuisines, des stands de produits fermiers... sans oublier les animations de musique, de danse, de pelote et multiples autres tâches comme la gestion des stationnements ou le service des navettes.

Toute cette mobilisation aura permis de réussir l'édition 2022 de la fête des cerises.

burdin mina ziloetan gertatua

Apirilaren 28an, aratsalde erditan, Berandoztarrak ohartu dira Errekagorri Latserat burdin mina zilotik jausten den erreka gorri eta nasai ixurtzen zela arroilan behera, sufre usain bat omen zariola.

Handik denbora guttirat, Latseko urak eta Errobikoak ere hori gorritu dira... Dakigunaz, izan diren kalte larrienak erreka arrainetan izan dira, baitaere gainerateko ur barneko bitxo guziz gehiena erre omen dira.

Zer gertatu zen laster jakin zen. Pirita burdin mina zilohorien erabilpenak utziak izan dira joan den mendearen erditarik berehala. Itxura guzien arabera, lurrez tapatu omen zituzten mina zilorat heltzeko sargiak, eta urak gaindika beterik zaukalarik mina ziloa, noizbait lehertu da sargian ezarria izana zen lurra, burrustan erreka behera jautsi direlarik urketa nasaia mina ziloko harriek koloreztatuak.

Jendetan kalterik ez badu egin apirileko uholde gorri horrek, erakunde publiko berezitu batzu ari dira oraino ikertzen nolaz gertatu ahal izan den eta nola zaindu berriz gertatzetik.

Minetarat hurbiltzeak ere debekatu dira berehala. Gobernuaren esku omen direnez erabilpenik gabeko mina zilook, miatze guziak egin ondotik, burdin kehetaz hersteoak dituzte zilo sargia, beste behin ez dadin errekan behera lehertu mina ziloo kokatua zen urketa.



Latseko erreka - Le laxia



Errobiko urak - La Nive

mines : irruption dans l'actualité

Ce sont les habitants de Berandotz qui ont lancé l'alerte en fin d'après midi du 28 avril 2022 : Errekagorri le ruisseau qui passe sous le pont d'Abilenborda déferlait en torrent jaune orangé et semblait dégager une odeur forte de soufre.

Il n'aura pas fallu longtemps pour que les eaux du Laxia et même celles de la Nive ne se teintent en jaune orangé....

A notre connaissance, les dommages principaux ont été subis par les poissons d'Errekagorri et du Laxia, ainsi que par toute la faune aquatique qui vivait sur ces cours d'eaux.

Nous savons ce qui s'est produit. L'entrée principale de cette mine de pyrite de fer dont l'exploitation avait été abandonnée au milieu du 20^{ème} siècle avait été obturée par une digue de terre. La digue a permis le stockage d'énormes volumes d'eau qui se sont chargés de divers métaux d'origine naturelle. Et, pour une raison encore inconnue, la digue a cédé dans la soirée du 28 avril, libérant ces masses d'eaux de couleur jaune orangé vers la vallée du Laxia.

S'il n'y a pas à déplorer de dommages humains lors de cet épisode de crue exceptionnelle, divers organismes officiels sont encore en train de travailler sur la compréhension du phénomène et sur la prévention des risques.

Les analyses de sédiments sur Errekagorri et Laxia ont révélé des taux importants de métaux lourds et des mesures d'interdiction de la pêche et de l'accès aux plages et aux criques ont été arrêtées.

Iurpean miatzen garai ezberdinetan Itsasun


Duela berrikiko urreketerien proiektua da gelditua itsasuar gehien oroitzen. Sudmine enpresak nahi izan zuelarik ardietsi Lapurdi barnekalde huntan urre miatzeko baimena....

Lehen aspaldi izan omen dira urre miatze garaiak Itsasuko eremutan, bereziki Panekau Alzuieta eta Basaburu aldean.

19garren mende erditarik lekora, eta hogoigarren mende erdi arte, burdingai bilatzaileak izan dira Itsasuko mendialdean, eta burdin pirita meategi nagusi bat ibili da luzaz Berandotzen.

Badira han hemen mendialdean Berandotzeko meategiaren aztarnak. Burdin harria karrottoetan jausten zuten Latseraino, eta hortik behera trenak eramaten zukeen Frantziako lantegi berezituetat.

Paper zaharrak lekuko, beti kanpotik jiten ziren burdingai miatzea eskatzen zuten gizonak. Hori gertatu da Berandotzeko meategia ideki eta erabili duen Mr Gindrekin ere (à vérifier le nom). Esku langileak aldiz herrikoak edo auzo herritakoak ziren beti ala gehienetan. Mina garaien lekuko guti gelditzen da. Lekukoen ondokoek erran lezakete lan bortitza zela meategikoa, eta lan sari suhurra eskaintzen zuela.



différentes périodes d'extraction minière à Itxassou

Ataitze mobilité

Bisitarien beribilak atxiki elizako auzoan

Herriko etxeak aurten berriz ezartzen ditu gazteak Ataitzetako bide sartzean bisitarien beribilak aparkalekuei buruz igortzeko, eta ondorioz auzokoan ibilbidea lasaitzeko Ataitzetan.

Helburua da bisitarien konpreni araztea Ataitzen hobe dela oinez ibiltzea beribilez baino. Eta Berandotzeko ostatuatarat joan nahi dutelarik errexago dela Gehastoko gainetarik.

Lekuan ezarriak diren baliabideak hauxe dira: Zabaloko bidea sentsu bakar, aparkalekuak panel argiekini seinatuak, eta hiru gazte udako bi hilabeterendako.

Réguler le flux automobile

La commune se donne les moyens à nouveau cet été de réguler la circulation au Pas De Roland et par là même de faciliter le quotidien des riverains.

L'objectif est d'inviter voire persuader les visiteurs à découvrir le Pas de Roland à pied et parallèlement de proposer aux automobilistes souhaitant rejoindre les hauteurs d'Itxassou et ses restaurants à emprunter un itinéraire de délestage via un parcours plus facile et plus roulant.

Les moyens de cet objectif : une réglementation de la circulation doublée d'une signalétique routière pertinente et le recours à trois agents saisonniers pour la période estivale.

C'est l'épisode récent du projet d'exploitation de mine d'or qui est resté dans les mémoires des itsasuar. Ce projet-là concernait plusieurs communes du Labourd intérieur et a fini par être neutralisé par les autorités administratives.

Nous trouvons des vestiges d'exploitation de minerai d'or sur Itxassou qui renvoient à des périodes très anciennes, en particulier sur les secteurs Basaburu et Panecau.

Depuis la deuxième moitié du 19^{ème} siècle et jusqu'aux années 1950, le sous-sol de nos montagnes d'Itxassou a été convoité pour des minerais divers, et c'est plus particulièrement la pyrite de fer qui a été exploitée sur la mine de Berandotz.

Les industriels qui prospectaient et sollicitaient les autorisations d'exploitation étaient toujours extérieurs au territoire, les archives font ainsi état de Société des Mines Penarroya et BP Pétroleum Development Limited France.

Les travailleurs en revanche étaient tous du pays. Les témoins directs sont aujourd'hui très rares. Mais leurs descendants en ont souvent conservé une mémoire vive et douloureuse : certes de l'emploi local, mais des conditions de travail très pénibles, pour des salaires dérisoires.

Quelques vestiges subsistent encore de ce passé minier. Le minerai était descendu jusqu'au Laxia sur des wagonnets que supportaient des rails dont on retrouve çà et là dans la nature quelques fragments.

Depuis le Laxia, les chargements étaient embarqués en gare d'Itxassou pour être expédiés vers des usines de l'hexagone.

le PLU vient d'être arrêté par la CAPB hirigintza plana gelditu du Euskal Herriko Hiri Elkargoak

Le PLU qui vient d'être arrêté ce 9 juillet par la CAPB était sur l'ouvrage depuis 10 ans.

Sitôt en place au mois de juillet 2020 la nouvelle municipalité a engagé un travail très régulier avec pour objectif de porter un projet collectif qui, contrairement au passé, ne se dessinerait pas en fonction des opportunités et à l'échelle de la parcelle de propriété mais bien au niveau global de l'espace géographique et social de la commune (cf bulletin municipal avril 2022).

Les réflexions ont été portées à un rythme soutenu en commission urbanisme composée de 10 élus dont 3 de l'opposition avec le soutien technique des chargées de mission de la CAPB et du Bureau d'Etudes.

Les débats y ont été toujours très ouverts, nourris et élargis régulièrement au Conseil Municipal : débat du Projet d'Aménagement et de Développement Durable, planification des OAP (Orientation d'Aménagement et de Programmation), changements de destination, réflexions particulières sur le devenir de la Nive, zonage et règlement.

L'avis délivré en conseil municipal le 21 juin dernier est venu clôturer ce processus et valider le projet avant qu'il ne soit soumis à la délibération que vient de voter le conseil communautaire.

Quant à la population, la municipalité a veillé à l'informer sans relâche : le bulletin municipal et les 2 réunions publiques auront permis de présenter le projet au fur et à mesure de son avancement. Au-delà on retiendra une enquête auprès du monde agricole avec à la clef une réunion spécifique de présentation du projet (zonage et règlement) ainsi que la réflexion collective portée au travers du plan-guide, outil de concertation citoyenne qui a nourri le PLU.

Itsasuko hirigintza plana, hamar urte hauetan lantua zena, gelditu du Hiri Elkargoak 2022ko uztailaren 9 huntan.

Lekuan jarri orduko 2020ko uztailan, hautetsi berriek lan jarraikia abiatu dute helburutzat agertuz egitasmo kolektibo bat, ordu arte ez bezala, ez zena erabakiko lur eremu erreki eraikigarriaren arabera, baina bai herriko eremu sozial eta geografiko orokorraren arabera. (ik 2022ko apirilko herri aldizkaria)

Gogoetak eramanak izan dira, motel unerik gabe, herriko etxeko urbanismo batzordean. Batzorde huntan baziren 10 hautetsi eta hauetan 3 gehiengotik aparteko zerrendetarik, eta baziren teknikoki laguntzeko eta kudeatzeko CAPBko ordezkari teknikoak eta APGL urbanismo bulegoko teknikariak eta aholkulariak.

Eztabaidak beti biziki idekiak izan dira, askotan sakonak eta herriko kontseilu guziari zabalduak : PADD norabide txostenaren inguruko eztabaidak, OAP delako mugatzeak eta arautzeak, landa eremuko eraikin batzuen erabilpenaren aldatzeak, Irigoibeherearen etorkizunari buruzko eztabaidak, lur eremuen klasamenduaren zehazteak eta araudi guzien erabakitzeak.

Herriko Etxeko kontseiluaren abisu batek, 2022 ekainaren 21ean, eman dio bururapena ibilbide luze horri, baimenduz hirigintza plana Herri Elkargoan aurkeztua eta bozkatua izan aintzin CAPBko biltzar orokorrean.

Herritarrei buruz bestalde, herriko etxeko gehiengoak ahalegindu da gelditu gabe informazioaren zabalitzea : herri aldizkariak eta 2 biltzar publikoek eman dute parada PLU proiektuaren aurkezteko bere aintzinarapenaren arabera. Gainera gogoratzeak dira laborariei zuzendua izan zen inkesta berezia ondorioaren aurkezpen dedikatu batekin (zonaja eta eraikuntzaren araudiak), baita gogoeta kolektibo bat plan guide delakoari esker, herri partaidetzaren baliatzeke tresna izan baita eta hirigintza plana ederki hazi duena.

urrats berria : ekintza fitxak muntatzea plan guide : nouvelle étape

Herriko etxeak baliatuko du erakunde publikoek behar duten denbora Itsasuko Hirigintza planaren azterten, berriz sustatzeko kontzertazio garai berri bat herritarrekin, hauek duten herriaren ikuspegiaz.

2022ko apirilean agertu herri aldizkarian aurkeztu zen diagnostika eta plan horrek garatzen ahal zituen helburu programatikoak.

Aldi huntako faseak landuko ditu ekintza fitxa zehatzak hautetsien eskutik, herritarren eta komertzanteen partaidetzarekin.

Fitxa horiek geldituko dira etorkizunean herriak eginen dituen obren oinharri. Horietan agertuko da zeri lotu, eremuan nola mugatu, noiz nola eginen den zehaztu, eta dirustatzea aurrikusi.



La Commune va mettre à profit le délai d'examen du PLU par les personnes publiques associées pour relancer le travail de concertation initié avec les itsasuar et visant à partager la perception du village et son évolution.

Le bulletin d'avril 2022 a présenté le diagnostic et les multiples objectifs de ce plan programmatique.

La nouvelle phase va consister pour les élus et en collaboration avec les habitants et commerçants précédemment sollicités à travailler à l'élaboration de fiches actions. Ces fiches seront autant d'outils à disposition de la collectivité pour cibler, spatialiser, programmer, budgétiser les différents aménagements à venir sur la commune.

viendra le temps de l'enquête publique dans quelques mois inkesta publikoaren garaia jinen da

Le PLU arrêté, cela signifie que le projet qui vous a été présenté en réunion publique le 1^{er} avril dernier a été figé et la concertation publique clôturée.

Le dossier est désormais et pendant 3 mois soumis à examen par les personnes publiques associées c'est-à-dire un ensemble de services de l'Etat, le SCOT, les services de la CAPB (eau, assainissement...), les chambres consulaires, la chambre d'agriculture et EHLG, le Département, les autorités environnementales...

C'est au terme de ce délai, soit vraisemblablement dans le courant du mois de novembre, que le dossier sera soumis à enquête publique pendant un mois.

Un commissaire-enquêteur traitera les avis recueillis auprès des personnes publiques associées ainsi que les remarques qui lui auront été exprimées par tout un chacun durant le déroulement de l'enquête.

Cette procédure permet d'apporter d'éventuelles modifications au projet avant de l'approuver : celles-ci restent toutefois à la marge et dans tous les cas conformes à l'intérêt général.

Une publicité spécifique sera assurée pour informer le public de la tenue de cette enquête publique et de ses modalités pratiques.

Pour rappel l'ensemble des éléments relatifs au dossier sont en ligne sur les sites de la CAPB et de la Commune.



Hirigintza plana gelditua izanik, erran nahi du 2022ko apirilaren 1ean aurkeztua izan zen egitasmo hura bere hartan gelditua dela eta herritarrekilako kontzertazioa hetsia.

Hirigintza planaren dozierra, hemendik aintzina eta hiru hilabetez, erakunde publikoen azterketan dago. Erran nahi du erakunde hauen guzieren esku : estatuko zerbitzuak, SCOT-ak, CAPBko zerbitzuek (ura, ur zikinak..), ofiziale ganbara ezberdinek, Paueko laborantza ganbarak eta EHLG, Departamendua, ingurumenaren ardura duten egiturak...

Hiru hilabete epe horren ondotik, itxuraz 2022ko azaroan, gure hirigintza planaren dozierra inkesta publikoan idekia izanen da hilabete batez.

Inkesta mandatari batek aztertuko ditu erakunde publikoek eta herritarrek helarazi dizkioten ohar guziak.

Ibilmolde horrek egiten ahal du aldaketa zenbait agertzea hirigintza planari aldebat onetsia izan aintzin : nahitaez, aldaketa horiek egitasmoaren funtsa ez dute hunkitzen eta baitezpada interes orokorrari erantzun behar dute.


Iragarki edo publizitate kanpana berezi bat antolatua izanen da inkesta publiko horren berri emateko, jakinarazteko noiz eta nola.

Oroitarazten dugu, Herriko Etxeko eta Hiri Elkargoko internet gunean direla hirigintza planari buruzko informazio guziak.

explorer de nouvelles alternatives

La pression foncière et immobilière déjà très forte sur notre région s'est amplifiée avec la crise Covid et les collectivités publiques peinent à trouver les outils qui permettraient de contenir le phénomène.

Nous voulons partager le sentiment d'impuissance de beaucoup de nos concitoyens mais aussi faire connaître les alternatives qui existent et dont nous cherchons à nous saisir.



« C'est du harcèlement ! ». Exaspérée par le démarchage permanent des agences immobilières, cette Itsasuar se présente à la mairie et raconte « C'est incessant, en moins d'une semaine, j'ai reçu la visite impromptue à mon domicile d'une agent immobilier prête à estimer la valeur immobilière de ma maison ; le lendemain je reçois une lettre adressée nominativement d'une autre agence ayant réalisé (photo à l'appui) une transaction très lucrative dans le voisinage et m'assurant de ses services pour vendre ma maison dans des conditions tout autant profitables. Pourtant, je n'ai rien demandé à personne ! Comment tout cela est-il devenu possible ? Nous vivions jusque-là dans un village simple avec des valeurs, et aujourd'hui nos maisons sont devenues des placements financiers qui montent à la tête de certains villageois. »

A l'heure où les habitants de notre commune peinent à se loger, à l'heure où le prix du foncier bâti est hors de portée des bourses des habitants de la commune, le démarchage de ces agences immobilières peu scrupuleuses à la seule recherche de profit devient difficilement soutenable. La faute à un marché totalement dérégulé et non maîtrisé !

Il existe pourtant parfois des solutions. Certains propriétaires affectés et conscients de la problématique du logement se tournent vers la commune au moment de vendre leur propriété. L'établissement foncier local du Pays Basque vient alors seconder la municipalité et réalise pour son compte une étude de faisabilité. Comment la surface habitable peut-elle être agrandie, transformée en plusieurs logements ? Est-on en mesure d'atteindre un équilibre financier qui permette à la municipalité d'offrir à la vente des logements à des prix maîtrisés accessibles pour la population locale ? Lorsque cette étude confirme l'intérêt du bien pour la collectivité, l'EPFL se positionnera pour l'acquérir pour le compte de la commune, et en assurera le portage financier jusqu'à l'aboutissement du projet.

C'est en suivant cette démarche que la municipalité est aujourd'hui sur le point d'acquérir un bien sur la commune qui devrait lui permettre de proposer à la vente 4 à 5 logements de qualité à des prix maîtrisés. Ne cédon pas aux sirènes des professionnels de l'immobilier, explorons de nouvelles alternatives qui nous permettent collectivement d'agir pour qu'un habitat soit accessible à tout un chacun.

aterabide berriak ikertu behar dira

Lurrak eta etxebizitzak tinko tinkoa ziren aspalditik gure alderdian. Covid aren ondotik ainitzez areagotu da egoera. Erakunde publikoek lanak dituzte ihardokitzeko tresna egokien atxemaiten.

Nahi izan dugu zabaldu herritar askoren etsia, baitaere jakinarazi badirela baliatu behar ditugun aterabideak.



« jasan ezina da ! » Nardatua etxe sal erospenean ari diren agentzien dei eta bisitetaz, itsasuar hau jiten da Itsasuko herriko etxerat eta kondatzen dauku : « *geldi geldia hor dira ! aste bakar batez, ukan dut etxe sal erospenean ari den emazte bat etxearen balioa estimatu nahi zautana, eta aipatzen zautana paristarrek gure herriko ontasunentzat duten tirria. Biharamunean berean, postaz heldu zaut ene izenean gutun bat eskaintzeko bere laguntza ene etxea sal nezan preziorik hoberenean, berme bezala erakusten zautala ene auzoetarik batek saltzen omen duen etxearen argazkia, eta ohartzen niz saltzapenaren prezio ikaragarriaz. Altabada, nik ez dut nehoi deusik eskatu. Nola bihurtu da posible hau guzia ? Orain arte bizi ginen gure herri koxkorrean bere balore sendoekin, eta gaurregun gure etxeak bilakatuak dira banko inbertsio batzu »*

Egoitza beharretan diren herritarrek nekez atxemaiten dutelarik alokatzekoa, eraikigarri den lurraren prezioa sutan gora dabilelarik, etxe sal erospenean ari diren agentzien egitate urrikigabeak jasan gaitzak bilakatzen dira. Errua merkatu laxo eta nahasiarena da !

Badira ordea batzuetan aterabideak. Etxe jabe bakan batzu direlarik egoeraz nazkatuak eta arduraz jokatu nahi dutenak, beren ontasuna saltzeko orduan herriko etxeari buruz hurbiltzen dira. Orduan deitzen ahal du herriak herriarteko Eplf egitura, ikertzeko herriarentzat zer egingarritasun lukeen ontasunaren erosteak bizitegi salgarriak edo alokagarriak eskaintzeko. Zer neurritan eta zer baldintzetan handitu ote daiteke bizitegirako eremua, nola egin litezke apartamendu berriak ? badea oreka ekonomikoa ardiesterik bizitegiak salduz edo alokatuz herritarrentzat jasangarriak litezkeen prezioetan ? EPFL erakundearen ikerketak erakusten badu badela egingarritasun bat, berak eros dezake ontasuna herriaren kondurako, eta berak kudea lezazke inbestizamenduak proeikto berria bururatu arte.

Molde hortan du Itsasuko herriko etxeak erosten ari eraikia den ontasun bat, hartan laupabost bizitegi munta bait litezke kalitatezkoak eta erosgarriak herritarrentzat. Ez gitezen fida itsutuki etxe sal erospenean ari diren agentziei, iker ditzagun aterabide berriak denek eta bakotzak erosi ahal lezazketen bizitegiak lehenesteko.

Mobilité : réflexion et expérimentations



Balaki : pilota leku bat eta gehiago



Obra 2023 udazkenean hasiko litezke eta urte bat bederen iraun lezakete.

Balaki trinketa herriak erosi zuen 2021eko udazkenean. Mementoz aldaketarik ez da ikusten lekuan bertan edo trinketaren erabilpenean. Altabada, berritze eta handitze proiektuak ederki aintzintzen ari dira.

2021eko udaberrian egin zen inkesta publikotik urte bereko abendoan izan zen tailer partehartzaileen emaitzen aurkezpenarekin, ongi zehaztu zen Balaki gune horrek merezi zuela hobekienik erabilia izatea. Trinketa egonez Balakiren bihotza, ezkalada egiteko gela bat munta liteke pilotako murruren kanpoko aldean, eta erabilpen aintzeko elkargune bat eta ostatu gune bat gara litezke trinketaren aintzin eta sahetsean.

Herriko Etxea biltzen da segituki pilotako eta ezkaladako eragileekin, azken hau ere elkarte moduan antolatzen ari direla. Jokoan den proiektua potoloa da eta hautetsiek eskuratua dute CAUE aholku erakundeko arkitekta baten laguntza, sail tekniko eta ekonomikoetan aditua. Ofizioko animatzaile batek ekartzen du aldiz bere lagungoa proiektu eragileen arteko kudeatzeko.

herriko kontseiluak aho batez proiektu eder baten alde

Herriko kontseiluak aho batez bozkatu zuen 1 403 000€ko dirutza 2022ko ekainaren 2ko bilkuran. Diru zama hori Itsasuko herriak merezi duen proiektu eder baten neurrikoa da. Herriko Etxearen betebeharretan bada oraitik diru laguntza publiko gehienaren eskuratzea.

Herri aldizkari hau argitaratzen dugun orduan, arkitektoei dei zabala igorri izan da adieraziz Balaki pilota lekua, ezkaladarako gela bat, erabilpen aintzeko elkargune bat eta ostatua berri eta eraiki nahi ditugula Itsasan.

2022ko udazkenean ezagutuko da nor den hautatua izan den arkitektoa Balakiren proiektu marrazteko eta obretan kudeatzeko. Proiektu berria marraztuko duelarik eta obra kudeatuko dituelarik, arkitekto hunek beti aldean izanen ditu herriko etxeko hautetsiak eta Balakiko eragileen ordezkariak.

Egutegia uste baino tinkoago da. Eraikitze baimenak eta diru laguntza nagusiak eskatu behar dira 2023ko urte hastapenean, eta badakigu batzuetan eraikitze baimenak luzapenak jasaiten dituztela. Eraikitze baimena eskuratuz geroz, obra egiten dituzten enpresei eskaintzak igorri behar dira eta hauen erantzunen orduan hautatu zoinen duen bermerik sendoena eta obren egiteko epe egokiena.

Balaki : un temple de la pelote et bien davantage

Les travaux devraient commencer à l'automne 2023, et pourraient durer à minima une année entière.

Le trinquet Balaki est devenu un équipement communal depuis l'automne 2021. Aucune évolution n'est encore perceptible sur le site ou dans son utilisation. Mais la programmation des projets de réhabilitation et d'extension a bien avancé.

Depuis l'enquête publique du printemps 2021, jusqu'à la restitution des ateliers participatifs de décembre de cette même année, l'ambition s'est précisée de valoriser au mieux ce site Balaki.



Travaux par Balakiko lagunak avant l'acquisition par la mairie

Tout en préservant en cœur de projet l'activité de pelote en trinquet, un équipement de salle d'escalade en extension du mur de frappe, des locaux multi activités et un espace bar restauration gagneraient de nouveaux espaces sur les flancs sud et ouest du bâtiment.

La municipalité d'Ixassou mobilise très régulièrement les porteurs de projets que sont les référents de la pelote sur le village ou les promoteurs du mur d'escalade qui sont aussi organisés en association sur la commune. Les enjeux d'aménagements sont importants, et les élus de la mairie bénéficient d'un accompagnement technique et économique par Louis BEAUDON architecte conseil du CAUE*, organisme départemental avec lequel la commune a conventionné. Ils se sont aussi enjoint les services d'ADEIKO* avec un animateur professionnel pour assurer la coordination des porteurs de projet.

CAUE : (conseil d'architecture, d'urbanisme et de l'environnement) est un organisme investi d'une mission d'intérêt public, né de la loi sur l'architecture du 3 janvier 1977. Il a pour objectif de promouvoir et encourager la qualité de l'architecture, de l'urbanisme et de l'environnement dans le territoire départemental; il apporte conseil et aide aux maîtres d'ouvrage.

Adeiko : organisme d'aide à la gestion de projet basé sur Espelette et dont Ximun Carrere est l'acteur impliqué localement sur le projet de Balaki.

les élus de la commune votent d'une seule voix pour un beau projet

L'enveloppe financière votée en conseil municipal et à l'unanimité à la séance du 02 juin 2022 prévoit un engagement de 1 403 000€ hors taxe.

Cet engagement financier important est à l'échelle d'un beau projet Balaki en entrée de bourg d'Ixassou.

La municipalité d'Ixassou est investie dès à présent dans la recherche de soutiens financiers de la part des collectivités publiques.

A l'heure où nous éditons ce bulletin municipal, un marché public de maîtrise d'œuvre a été lancé sur la base d'un cahier des charges qui définit le projet de réhabilitation du trinquet et les aménagements d'un mur d'escalade, de locaux multi-activités et d'un espace bar restauration.

L'architecte ou le groupe d'opérateurs dont la candidature aura été retenue devrait être connu pour l'automne 2022. Il aura la responsabilité du programme dans sa globalité et pilotera le chantier jusqu'à son terme avec la commune, maître d'ouvrage.

L'agenda paraît déjà très contraint, puisque le dépôt du permis de construire est prévu pour début janvier 2023 et certains délais d'instruction de documents d'urbanisme prennent plusieurs semaines, voire plusieurs mois.

Restera ensuite à lancer l'appel d'offres pour le marché de travaux : le choix des entreprises sera fonction des conditions techniques et financières mais également en termes de disponibilité de calendrier.

elgarretaratu eta har eta eman

Argi ta garbi atera zen Apitropik herri lanetik bazela karrika nagusirako sartze hortan elkartzeko eta trukatzeko gune berezi baten sortzeko nahikeria. Elgarrekin egiteko asmoa, elgarrekin egoiteko gogoia sustatzea bezainbat, elgarri ekartzeko edo elgarretarik hartzeko bezala.

Pilota eta eskaladarentzat egokituak diren espazioetatik haratago, beste espazio baten sortzeko beharra agertu da.

Trinketaren berritzeari datxikola, eraikuntza parte berri bat liteke, erreki bana eta alda litezkeen gela moduloekin.

Beharrorduaren arabera, adibidez, goizean jateko egiten ikasten balia liteke, iluntzean gaztek balia lezakete txintxuketa tailer baten antolatzeko, jitea eta jakitate dutenek trebatzen laguntzen dituztela uzkurrago direnak.

Adibideak besterik ez dira sukalde ala txintxuketa tailerrenak, baina asmoa liteke dakienak trebatu nahi duenarekin elkartzea elgarrekin egiteko, adituen mundutik arituen mundurat igaiteko.

Ezaguna bada aspalditik auzo lana, Pilota eta eskaladarekin batera, gela berri hortan auzo ekintzaren eta jakintzaren trukatzeko proposatzen da, sal erosten geldi ezinaren zirimolatik doi bat ateratzeko, bakardadetik baztertzeko.



un carrefour de rencontres et d'échanges

Des ateliers participatifs d'Apitropik en 2021, il ressortait clairement qu'il y avait une envie partagée de voir émerger dans l'enceinte du trinquet Balaki et en entrée du bourg d'Itxassou, un équipement qui serait un carrefour de rencontres et d'échanges.

Combinés à la pratique de la pelote et de l'escalade, un lieu et des locaux qui favoriseraient le faire ensemble et le partage de savoir faire.

Avant de décider prochainement d'une dénomination définitive pour ces locaux nous les désignons ici par espace multi activités.

Concrètement, cette zone multi-activités compterait 160m² de surfaces couvertes et modulables en fonction des besoins des utilisateurs. Ces locaux ne bénéficieraient pas de mise à disposition permanente offrant ainsi une réelle flexibilité.

Les modes de fonctionnement précis restent à définir. Cependant, il apparait assez clairement que la diversité des activités nécessitera une coordination du site.

Un site où on veillera à la nécessaire intégration de l'espace bar restauration dont on veut qu'il vienne conforter l'animation de ce secteur du bourg d'Itxassou sans faire ombre à l'activité des restaurants déjà présents sur Gaineko karrika.



Arroka : ezkalada elkarte berria jeune association d'escalade

Balakiren erostea ez zelarik oraino trenkatua, zenbait itsasuar hasiak ziren asmatzen ezkalada egiteko gela bati pilota jotzen den paretaren kanpokaldean.

Gehienak itsasuarrak ziren eta mendi kiroltzale ohituak edo errabiatuak.

Laster antolatu zuten departamendu guzian hedatu zuten inkesta bat, ikusteko zer arrakasta eskura zezakeen modu hortako ekipamendu batek Lapurdi barnekalde huntan.

Inkestak oihartzun baikorrak itzuli zizkien, eta amesten zuten egitasmo bilakatzen hasi zen.

Itsasuko herriak baditu aspalditik ezkaladako arrokak Mundarrain kaskoan, Arroka elkarte berriaren asmoa trinketari datxikola ezkaladako gela baten eraikitzea da, bere soka eta bloka ibilbide ezberdinekin.

Quelques mois avant que l'acquisition du trinquet Balaki ne soit définitivement signée, des itsasuar ont commencé à imaginer la création d'une salle d'escalade couverte dans l'enceinte de Balaki.

Ce sont pour la plupart des pratiquants de la montagne en mode randonnée et des passionnés de ce sport bien particulier.

Ils se sont très vite organisés pour diffuser une enquête à l'échelle du département pour recenser les besoins en salle d'escalade et jauger l'intérêt d'un tel équipement sur notre territoire du Labourd intérieur.

Les retours d'enquête ont été très positifs et les promoteurs de l'initiative sont devenus d'ardents porteurs de projet auprès de la municipalité d'Itsasu.

Notre commune offrait déjà des falaises d'escalade pleine nature sur les pitons du Mondarrain, la proposition de la toute jeune association Arroka sur le trinquet consistera à construire une salle attenante au mur de fronton de Balaki et à l'équiper de voies d'escalade cordes sur un côté et de blocs sur l'autre côté.



Lehen gogoia eskalada paretaren eraikitzea ginateke: herritarrentzat, eskoletako haurrentzat eta armiarmen gisara paretetan gora edota zintziilik ibiltzeko gogoia luketen guztientzat.

Hau gauzatzeko bidean da, herriko etxearekin eskuz esku lanean ari baigira murraren eraikitzeko trinkete gibeledu eremuan.

Herri zentroaren biziarazten lagunduko duela segur gira, herritarren arteko trukaketak segurtatuz.

Baina, hortik haratago joanez, ARROKA mendi elkarte izan dadin nahiko ginateke, gure ingurumen naturalean egin ditzakegun aktibitate desberdinetaz gozatzeko parada eskeiniko lukeena, ingurumen hunen babesteko eta zaintzeko beharra aintzina emanez."

Xehetasun gehiagorentzat ez duda gurekin harremanetan sartzea: info@arroka.eus

Notre premier objectif est de construire un mur d'escalade: pour les villageois, les élèves des écoles, et finalement toute personne souhaitant grimper ou se retrouver suspendue dans le vide!

Ce projet est en bonne voie, et un mur d'escalade devrait voir le jour dans l'espace situé derrière le trinquet, grâce au travail mené en collaboration avec la mairie.

Nous pensons vraiment que ce projet va participer à la dynamisation du bourg d'Itsasu, et que ce mur sera un lieu d'échanges et de rencontres entre Itsasuar.

Mais notre ambition va au delà de l'escalade. En créant l'association de montagne ARROKA, nous aimerions offrir la possibilité de pratiquer différentes activités de montagne, en sensibilisant les pratiquants à la nécessité de respecter et protéger cet environnement."

Pour entrer en contact avec nous: info@arroka.eus

gure saiak GPSez zainduak izanen dira nos vautours sont suivis au GPS

(Isabelle Rebours - Association Saiak)

Lehen aldia da Euskal Herrian saieri ezartzen zizkiela holako tresnak, ikertzeko beren ibil moldeak, ezagutzeko beren jan tokiak, pausa tokiak eta umen hazteko tokiak.

Maiatzaren 2021 etik hugarat, Arrokkagarai ko ibiltzaleek ikusten dute kaiola bat haragi puskekin kaskoan. Hori zepo bat dat saiak arrapatzeko eta GPS tresnak beren soinean ezartzeko.

Lan ikerketa hori egina da Natura 2000 ren estakulian eta Akitania berriko DREAL ak dirustatzen du.

Aurtengo primaderan, 29 saieri PNP ko langileek ezarri diete tresna klase hori, Arrokkagarai ko kaskoan. Hor markatutako sai gehienak Euskal Herriko mendebalean bizi dira (zonbait Ataitzen). Bertze batzu Nafarrora joan dira eta bat Andalusiarraino segitua izan da. Orain Aspe aranean kokatua da

Hor arrapatu sai batek bazuen deia eraztun bat hankan 2009 an ezarria Ossauko ibarrean. 2022an kafia Itsasun egin du.

Lan horrek 2 urte iraunen du DREAL aren sustenguarekin, Mondarrain-Artzamendi SIVUaren laguntzarekin bai eta ere Itsasuko herriko etxea, OFB, CEFE-CNRS Montpellier eta Pireneoko parke nazionalarekin.

Xehetasun gehiagorentzat : www.saiak.com



Photo d'Alain Pagoaga – Saiak

Ce projet vise, pour la première fois - au Pays Basque - à équiper de balises de géolocalisation un échantillon significatif de vautours fauves afin d'étudier leurs déplacements, de préciser leurs domaines vitaux, les zones spatiales régulièrement utilisées par les vautours pour répondre à leurs besoins primaires : nourriture, lieux de nidification et de repos et leurs sites d'alimentation notamment pour évaluer la part des placettes

Depuis mai 2021, les promeneurs qui admirent le point de vue sur Arrokkagarai auront remarqué une longue cage avec des appâts souvent malodorants sur son sommet. Ce dispositif, utilisé par l'association Saiak, est destiné à capturer des vautours fauves afin de les équiper de balises GPS.

Cette étude s'insère dans le cadre des Etudes et suivis scientifiques Natura 2000 financés par la DREAL Nouvelle Aquitaine. Ce printemps, 29 vautours fauves adultes ont été équipés de balises GPS sur Arrokkagarai par 2 agents du PNP habilités. La plupart des vautours équipés fréquente la partie ouest du Pays Basque (certains nichent sur la colonie du Pas de Roland). D'autres sont reproducteurs en Navarre. Un individu, peu après avoir été équipé, a été localisé à 800 km en Andalousie. Actuellement il séjourne en vallée d'Aspe !

Un vautour fauve que nous avons équipé d'une balise GPS sur Arrokkagarai portait déjà une bague à la patte. Son code CVS a révélé qu'il avait été bagué au nid, en 2009 en vallée d'Ossau. En 2022, il niche à Itsasu.

Ce projet déployé sur 2 années, avec l'appui de la DREAL est réalisé en partenariat avec le SIVU Mondarrain-Artzamendi, la commune d'Itsasu, l'OFB, le CEFE-CNRS Montpellier et le Parc national des Pyrénées (PNP).

Pour en savoir plus : www.saiak.com




Photo de Jean Curutcharry - Saiak

propriétaire riverain et entretien des cours d'eau

Les épisodes de pluies intenses provoquent régulièrement des problèmes sur les ruisseaux et torrents de nos quartiers d'Ixassou. Le manque d'entretien des berges est souvent incriminé.

La communauté d'agglomération CAPB a diffusé des fiches pratiques et illustrées pour donner des conseils pratiques d'entretien des berges de ruisseaux rappeler synthétiquement la réglementation qui s'applique aux cours d'eaux. (<https://communaute-paysbasque.fr/vivre-ici/leau/les-cours-deau-et-bassins-versants>).

Chacun pourra se référer aux fiches complètes par internet. Nous n'en diffusons ici que les éléments principaux.



Qui entretient le cours d'eau ?

Le propriétaire riverain est tenu à un entretien régulier du cours d'eau (la propriété s'étend sur la totalité du cours d'eau en cas de lit de cours d'eau inséré dans une même propriété, et jusqu'au milieu du lit du cours d'eau en situation de propriété sur un côté du cours d'eau)

Quel type d'intervention prévoir ?

Le propriétaire doit entretenir la végétation, retirer les débris et embacles entravant la circulation des eaux... Il est important de prendre certaines précautions pour maintenir une végétation arborée afin de garantir le maintien de la biodiversité, la stabilisation de la berge comme la filtration des eaux. En dessous du haut de berge, élimination des gros sujets et maintien des espèces arbustives et herbacées avec comme objectif la stabilisation de la berge et la réouverture du cours d'eau, la limitation de l'érosion de la berge et des risques d'inondation.

erreka bazterren artatzea lur jabeen esku da

Eurite nasaik egiten dituelarik bereziki izaten dira arrangurak Itsasuko erreka askoren itzulian. Lehen baino gutiago artatzen omen dira erreka bazterrak eta askotan galdu ere omen dira erreka bazterren artatzeko moldeak.

Hiri Elkargoak internet bidez hedatzen ditu aholku fitzak erreka bazterren zaintzeko eta lege arauen orotarazteko. Hementxe gutieneko aholku batzu :

Nork zaindu behar du erreka bazterra ?

Erreka bazterreko lur jabeek dute zaintzen erreka bere zabalean bi eskualdeen jabe izanez gero, edo erreka erdiraino beste jabea balin bada erreka bestaldean.

Nola zaindu behar dira erreka bazterrak ?

Lurraren jabeak atxiki behar du bazterreko landaretza, kendu uraren ixuria tratatzen duten guzia....

Neurri batean atxiki behar da erreka bazterreko zuhaitzeria, bioaniztasunaren begiratzeko, erreka bazterren lurra mantentzeko eta uren irets ahalak bermatzeko

Erreka hegian, kendu behar dira zuhaizki larrienak, eta utzi landare xeheagoak eta belarkiak, erreka bazterreko lurra mantentzeko eta erreka ixuria segurtatzeko, lur litatzetarik gerizatzu eta uhaste arriskuak murrizteko.

mendian mezu berriak kasu eginez ibiltzeko les bonnes pratiques en montagne

La montagne basque vous accueille... Respectez-la !
Euskal Mendiak errezebitzen zaitu... Zain ezazu !

LES BONNES PRATIQUES
JOKABIDE ONAK

Vous entrez en zone montagne, cela nécessite d'adopter un comportement respectueux envers la nature mais également envers les hommes et les femmes qui font vivre ce territoire. Il est important de respecter les règles représentées par les pictogrammes ci-dessous.

Mendialdera sartzen zara, eta horrek naturaren begiramenaz eta lurraldean bizi diren gizonezko eta emakumezkoen begiramenaz jakitzaera behar izaten zaitu. Garrantzitsua da hemen dituzun piktogramak erakusten dituzten arauak bete ditzozun.

Olongo Bizkarra
Vous êtes sur la commune d'Itxassou, située dans la province du Labourd, l'une des trois provinces du Pays Basque nord.
Durant votre randonnée, vous marcherez à côté de cerisiers emblématiques du village. On peut les observer en bordure de champs ou bien cultivés dans des vergers piétons.
Plusieurs variétés sont cultivées au Pays Basque et sont répertoriées au Conservatoire de la cerise dans le quartier de l'Église à Itxassou, en symbiose avec un rucher d'abeilles noires autochtones.

Olongo Bizkarra
Itxasu herria zara, Lapurdi probintzian, Ipar Euskal Herriko hiru probintzietako batean.
Zure ibilaldian, herriaren gereziozko enblematikoen artean ibiliko zara. Zelaian hegitan ilus litezke edo oinezkoen barazietan landuak.
Euskal Herrian hainbat mota lantzen dira eta gerezioaren babeslekuan dira zerrendaturik, Itxasuko Eliza auzoaldean, bertako erle beltzen erategi batekin sinbiosian.

Les massifs d'Arrokagarai, du Mondarrain et de l'Artzamendi ont vu récemment l'implantation de nouveaux panneaux affichant les recommandations de bonnes pratiques à respecter dans le cadre des balades et randonnées en montagne.

Que l'on soit visiteur d'un jour ou usager régulier de nos sentiers de montagne, les chiens non tenus en laisse sont la menace majeure vis-à-vis du pastoralisme que pratiquent nos éleveurs. Leurs animaux doivent pouvoir occuper en totale priorité le territoire de montagne, se nourrir et se déplacer sans jamais être dérangés.

Les éleveurs locaux sont les seuls usagers de la montagne à pouvoir détenir des chiens sans laisse sur nos montagnes.

Arrokai, Mundarrain eta Artzamendi bizkarretako bideetan agertu dira berriki panel haundi batzuek ibiltariei nola ibili adierazteko.

Egun bakarreko bisitari ala mendi gune hauetan ohizko ibiltzaile, denei jakinarazi nahi da zakurrak atxikirik ibili behar direla, gure mendiko alagietako abereentzat mehatxu nagusiak baitira. Mendiko azientek lehentasun eta lasaitasun osoz erabili behar dute beren mendi eremua, beren gustura alatu eta mogituz.

Mendiko artzainak dira beren zakurrak laxoan ibili dezazketen bakarrak.

1er budget participatif transfrontalier lehen diru laguntza parte hartzailea mugaz gainerik

Le conservatoire de l'abeille noire basé à Itxassou a été le lauréat de l'ideiak, dans le cadre du premier appel à projets participatifs transfrontalier, département 64- province du Gipuzkoa. Un chèque de 15840€ a été remis au président Fred Forsans de l'association pour développer les projets d'Erle Beltza.

Erle Beltza elkarteak du irabazi 64 departamenduak eta Gipuzkoak elgarrekin agertu duten proiektu parte hartzailearen diru laguntza lehiaketa. 15 840€ txekez eskuratu ditu Fred Forsans elkarteko lehendakariak Erle Beltzaren garapena jarraitzeko.





musika tailerrak euskaraz sei ilabetez hiru eskoletan

Musika proiektu baten bitartez euskararen irakaskuntza eta erabilera indartu nahi ditu herriko etxeak heldu den ikasturtean.

Orain artean gure indarrak hizkuntza guttitiuen xartari dedikatu ondoan, elkargoko poloen eta herrikoetxe desberdinen bisitak bere fruitua ekarri du. Azkenean martxoaren 11an bildu gira lapurdi, baxenafarroa eta xiberuko 49 herri, xarta huni gure babesa aho batez ekartzeko !

Gure herriko beharretarat bideratu gira orain, euskararen beharrezko presentzia eta erabilera sendotzeko xedez.

Itsasuko haurren %95 elebidun sailean izanki, herriko ikastetxeei euskarazko jarduerak eskaintzea lehentasunezkoa iruditu zitzaigun.

Gure herriko 3 ikastetxeekin 6 hilabetez euskarazko musika tailerrak eginen dira, ikasleek koadro akademikotik haratagoko testuinguru batean, euskararen erabiltzeko parada ukan dezaten, hezkunde nazionalaren programari doakion proposamen artistiko eta informalago batekin.

Hizkuntzaz haratago, aktibitate haueri esker, gure herriko haureri ezagutza kultural eta artistiko bat ekarriko zaie, baita Errobi poloko musika eta kantu eskolekin zubilanak eraikitzeko posibilitatea emanen ere.



des ateliers de musique en euskara pendant un semestre sur les 3 écoles

C'est au travers d'un projet musical que la Mairie souhaite renforcer l'apprentissage et l'utilisation de l'euskara.

Après nous être consacré.e.s durant une année à présenter la charte des langues minoritaires dans les Pôles d'Iparralde et dans de nombreuses municipalités, pour aboutir à sa signature par 49 d'entre-elles le 11 mars dernier, nous nous sommes mis.e.s au travail dans notre commune pour assurer une présence et une utilisation renforcées de l'euskara dans divers domaines.

95% des enfants d'Itsasu étant scolarisés en filiaire bilingue ou immersive, proposer des activités en euskara aux écoles du village nous semblait une priorité.

Nous avons donc fait appel aux Centres Musicaux Ruraux (CMR) afin d'assurer des ateliers de musique en langue basque sur une période de 6 mois pour l'année scolaire 2022-2023 et ce auprès des 3 écoles.

Notre objectif : donner la possibilité aux élèves d'aborder l'euskara dans un contexte artistique (en adéquation avec les programmes de l'Education Nationale), moins académique, plus informel que celui proposé par l'école.

De plus, ces ateliers permettront d'initier tous les enfants à une activité culturelle et artistique, onéreuse par ailleurs, tout en faisant des passerelles avec les écoles de musique et de chant du Pôle Errobi.



badabil elkartasunezko takzia taxi solidaire



Azken aldiko Herri aldizkarian aipatu bezala, elkartasun takziak hartua du bidea 2022ko maiatzaz geroztik, Herriko Etxeko CCAS zozial batzordeari esker.

Ateratzeko eta mogitzeko ibilgailurik ez duten herritar guzietan idekia da garraio molde hau, Itsasuko karrikarat ala Kanbo edo Ezpeletarat joan nahi dutenei eskainia.

Badira 8 lagun borondatez prest direnak beren beribilarekin, asteleheneetik ostiralerat, beharrunea duten itsasuarren laguntzeko erosketetarat, osagarri guneetarat, bestelako ateraldietarat edo txik txak autobusa hartzeko.

Nola ibiltzen den elkartasunezko takzia ?

Hiru urrats :

1. herriko etxean izena eman (05 59 29 75 36)
2. takziaz behartu nahi den egunaren bezperan abisatu herriko etxea, jakinaraziz norat eta zer tenoretan
3. hitzartu tenorean, bolondres bat jinen da eta nahianta eramanez eta itzuliko du.

Takzi zerbitzu hau dohainik da, baina ez du nehundik ere ordaintzen ahal ofiziozko takzien zerbitzua, bidaia luzeagoan edo osagarri beharrentzat. Hauxek dira ofizioz takzigoan ari direnak

Taxi LARRONDE Thierry : 06 75 67 52 60

Taxi Co and Co (COUETTE Corinne) 06 19 86 54 65

Ez duda herriko etxerat deitzeaz xehetasun gehiago eskuratzeko.

Comme annoncé dans le quatrième numéro du bulletin municipal, le transport solidaire à la demande s'est mis en route depuis le mois de mai 2022, à l'initiative du CCAS d'ITXASSOU.

Ce service s'adresse à tout.e Itsasuar dépourvu.e de moyen de locomotion et désireux de se déplacer sur les communes d'Itsasu, Kanbo et Ezpeleta.

C'est ainsi que 8 bénévoles d'Itsasu se rendent disponibles avec leur véhicule personnel, du lundi au vendredi, pour accompagner les Itsasuar faire des courses, honorer des rendez-vous médicaux, accomplir des démarches diverses ou prendre la navette Txik-Txak.

Comment ça marche ?

LES 3 ETAPES :

1. S'inscrire en mairie (05 59 29 75 36) ;
2. Téléphoner à la mairie la veille du déplacement afin de préciser la destination et les horaires ;
3. Un.e bénévole se rend au domicile du demandeur et effectue le déplacement.

Ce service est gratuit mais ne saurait se substituer en aucun cas aux services de taxis professionnels appelés à faire des courses sur des distances plus longues, de type médical ou autre :

Taxi LARRONDE Thierry : 06 75 67 52 60

Taxi Co and Co (COUETTE Corinne) : 06 19 86 54 65

Alors, n'hésitez pas à vous rapprocher de la mairie pour en savoir plus ! De nombreux Itsasuar sont déjà inscrits et quelques-un.e.s ont déjà testé !



autre initiative participative

Irigoineko zelai gunean den **elektrika zutabea auzolanean apaindu** dute hor bereko herritarrek. Enedis-enganik eskuratu berria zuten zutabearen azpikaldean marraztea, gorago arrisku larriak baitlitezke. Aspalditik eskatzen dute auzo hortan ehortziak izan ditezen elektrika hari horiek.

Les habitants d'Irigoinea se sont accordés pour peindre une **fresque sur le transformateur** de l'espace vert du lotissement. Ils s'étaient au préalable assurés de l'accord d'Enedis, qui imposait de ne pas aller au delà de 2.50m de hauteur pour des raisons de sécurité. Par contre la demande d'enfouissement des lignes électriques ne rencontre pas encore d'écho favorable.

gazteentzat alokairu sozialak

Herriko gazte batzu jiten badira Herriko Etxerat herriaren bizitegietan izen emateko, guti dira sozial alokairu dozierra ere betetzen dutenak bizitegi sozialak kudeatzen dituzten erakundetan.

Gaur egun Euskal Herri hunek bizi duen egoeran, konplikatuak da alokairu baten kausitzea gazte eta familientzat.

Behin baino gehiagotan gure herriko hautetsiak gomiatuak izan dira sozial bizitegi alokatzaile horien bilkuretan erabakitzeko nori eman hutsik gertatzen den bizitegia. Ez izanki izen bakar bat ere sozial bizitegien zerrendetan kokatzen zenik, eskainia onartu behar izan da bizitegia baliatzeko, herriarekin harreman zoztik ez duen hautagai bat.

Bereziki argitan ezarri behar dira zenbait ohar :

- 16 egoitza sozial badira alokairuan Itsasun, Errementa eta Oilomokoengan. Dozierrak betetzen arrunt errexak dira eta herriko etxeko zerbitzuen laguntza eskura liteke beharrez

- Sozial dozier bakar bat betetzean, balio du alokairuaren hautagaitza agertzeko Itsasun eta itzuliko herrietan, galdegilearen hautuko herrietan

- Alokairu zozialeko bizitegiak baliatu ahal izateko, ez da baitezpada biziki hilabete sari apala behar, jakinik herritarren %75 ak dretxo duela sozial alokairuen baliatzea. Are gehiago, hemen gaindiko jendetzaren lansarien 3tarik 2a sartzen dira sozial ezaugarri horietan.

Helduek eta familieek behar dute ozenki adierazi beren gazteei urrats hori baitezpadakoa dela bizitegia bilatzen denean. Gazteen motibatzeke, laster agertuko dira capsules video motzak sare zozialetan.



logement social pour les jeunes



Si certains jeunes viennent à la Mairie pour candidater aux logements communaux, ils sont cependant peu nombreux à remplir des demandes de logements auprès des bailleurs sociaux.

Dans le contexte actuel du Pays-basque, il est devenu compliqué pour les jeunes d'Iparralde ou les familles de trouver sur nos communes des logements disponibles à la location.

A diverses reprises, les élus de la commune ont été invités à siéger à la commission d'attribution auprès de bailleurs sociaux. N'ayant aucun candidat local à présenter pour les appartements sociaux d'Ixassou, ils ont dû admettre la mise à disposition de demandeurs qui n'ont aucun lien avec la commune.

Nous voulons attirer l'attention sur plusieurs points :

- Il y a 16 logements sociaux à Ixassou, précisément sur Errementa et Oilomokoena.
- Le dossier d'inscription est simple et rapide à compléter, et les demandeurs peuvent bénéficier de l'aide des services de la Mairie.
- Un unique dossier complété pour les logements d'Ixassou est valable pour d'autres villages que le demandeur choisira de retenir.
- Enfin, le caractère social de ces logements n'est pas limité aux revenus très bas puisqu'une étude récente a démontré que 75 % des habitants avaient droit à ces logements.

En effet, plus des 2/3 de nos habitants entrent bien dans les critères de revenus qu'imposent les règles d'attribution de ces logements dits « sociaux ».

Il revient aux adultes et aux familles de communiquer largement auprès de leurs jeunes pour qu'ils viennent faire cette démarche simple en Mairie.

Pour essayer d'atteindre ce public des jeunes, des capsules vidéo seront diffusées sur les réseaux sociaux. Retenir que 100% de ceux qui ont obtenu un logement social avaient rempli un dossier de demande qui n'excède pas 10 minutes. 25

zaldi egonaldia ikasle guzientzat San Josepen classe d'équitation pour tous à San Josep



Ezpeletako « Au Cheval de 3 » gaztetxoentzat :

Eskolako egitarauak oinarri, ama eskolako eta CP mailako ikasleek zaldia gaia barnatu dute heien erakasleekin : gorputzaren eskema eta bere hiztegia, bizilekua, jateko moldea, familia, xaldia edo zaldiarekin egiten ahal diren aktibitateak.

Bainan deusek ez du animalearen ezagutza ordezkatzin ! Ateraldi huni esker haurrek zaldi ingurumena deskubritu dute, xaldien kontaktuan egon dira, begiratu dituzte, mintzatu zaiete bainan ere artatu, zela eman, igan. Heien manipulatzin ikasi dute, jokoan bitartez gidatzen (txandakako lasterketak, ibilaldiak, akrobaziak).



Seignanx hiriko « MAGIS » zalditegian handientzat :

Heien eskolako lagun gazteak bezala, CE1etik CM2 arteko ikasleek oldar anitzekin, lau egunez, zaldi aktibitateak deskubritu dituzte, zaldien apailamendutik eskutan eta xaldien gainean ibiltzeko ibilbideera.

Zaldiz ibiltzeaz gain, Orxetako ihiztokian ibili dira, xorien apoarmatuen eta intsektuen begiratzeko gune xoragarrian, Labenneko oihanean norabideratze zentzua praktikatu zuten heien bidea atxeman behar zuten...eta zoota bisitatu zuten han diren animale estonagarriek xoratu dituzte.

Zeru garbi baten pean, lau deskubritze eta libertimendu egun aberats izan dira ! Zonbat orroitzapen eder !

Eskerrak bi zentroetako monitoreeri heien zaldien pasioa pasarazi baitute goxotasunarekin eta eginmode biziarekin. Eskerrak ere xaldieri pazientzia handikoak izan baitira.

Au Cheval de 3 d'Espelette pour les plus jeunes :

Dans le cadre des programmes scolaires, les élèves de maternelle et CP ont travaillé le thème du cheval avec leurs enseignantes : schéma corporel et son vocabulaire, lieu de vie, régime alimentaire, vocabulaire père/mère/petit, activités que l'on peut faire avec le poney ou le cheval.

Mais, rien ne remplace la rencontre avec l'animal !

Cette classe découverte a permis aux enfants de découvrir le milieu équestre, d'être en contact avec des poneys, de les regarder, de leur parler mais aussi de les panser, les seller puis les monter. Ils ont appris à les manipuler, les guider par le biais de jeux divers (relais, parcours, voltige).

Aux écuries MAGIS à Saint Martin de Seignanx pour les plus grands :

Tout comme leurs plus jeunes camarades, les élèves du CE1 au CM2 ont découvert avec beaucoup d'enthousiasme, durant quatre jours, les activités équestres, de la préparation des chevaux aux parcours balades en main et sur les poneys.

En plus de l'équitation, ils ont pu se promener au Marais d'Orx, site magnifique d'observation des oiseaux et autres tortues, insectes, ..., découvrir la forêt de Labenne où ils ont dû faire appel à leur sens de l'orientation pour retrouver leur chemin... et visiter le zoo où de nombreux animaux étonnants les ont tous émerveillés.

Quatre journées riches de découvertes et d'amusement, sous un ciel clément ! Que de beaux souvenirs !

Merci aux moniteurs et monitrices des deux centres pour la transmission de leur passion, pour leur gentillesse, leur savoir faire et aux chevaux pour leur patience.



Un bilan d'année très satisfaisant pour l'association de parents d'élèves. Toutes les manifestations ont été réalisées. Merci à tous les parents qui ont contribué par les actions communes à financer les déplacements des élèves sur les activités extérieures à la commune.

Burraso elkarteak urteko bilduma baikorra. Ekitaldi guziak obratu dira. Eskerrak diru biltzeko ekintzetan parte hartu duten burraso guziei, molde hortan ordaindu ahal izan baitira haurren ateraldietako bidai eta otordu sariak.

l'école publique a ouvert le champ des ressources locales **eskola publikoak tokiko baliabideak harrotu ditu**



Tokiko baliabideei buruzko proiektuaren kariatara, ikasleak kanpoko eragile anitzekin elkartu dira - berriz eskertzen ditugu haien denbora eta jankintza partekaturik - eta ateraldi batzuetan parte hartu dute, hala nola :

- **Aroztegi, Etxeberria eta Antxondoa etxalde**en bisitak ;
- Patrick Vaïsse **erlezaina** ;
- **Herri jokoak**, Gaia elkartearekin ;

Errobi gaia landu du 3. zikloko ikastaldeak, Euskal Herriko CPIE-arekin

Ama eskolako ikastaldeak 5 zentzumenei buruzko « **jastatu eta jostatu** » atelieran parte hartu du Sarde-sardexka elkartearekin,

Horrez gain, kirol-elkarretaratzeetan ere parte hartu dute ikasleek : 2.zikloan pilotan eta lehenmailako guziek atletismoan! 3. zikloko elebidunak Errobi kolegioko sektoreko eskolekin elkartu dira antzara joko erraldoi batean aritzeko.

Ikasturtea laster bururatuko da eta ikasleek ospatu dute eskolaren besta, ekainaren 24an, ostiralarekin, Atharrin. Erakusketa, dantzak, kantuak, antzerkia, jokoak, afaria eta pintxoak ikasleek prestaturik estimatuak izan dira !

Bakantza on !



Dans le cadre de son projet sur les **ressources locales**, les élèves ont pu rencontrer de nombreux intervenants et participer à diverses sorties. Notamment :

- Visite de 3 **fermes d'Ixassou** : ferme Aroztegi, ferme Etxeberria et ferme Antxondoa.
- Rencontre avec un **apiculteur** local, M. Patrick Vaïsse.
- **Matinée jeux traditionnels** avec l'association Gaia.

La classe de cycle 3 a travaillé sur le thème de **la Nive**, en collaboration avec le CPIE Pays Basque.

La classe de maternelle a participé à l'atelier « **goûter, c'est jouer** » sur les 5 sens avec l'association locale Sarde Sardexka.

Les élèves ont également participé à des rencontres sportives : rencontre pelote pour les cycle 2 et athlétisme pour tous les élémentaires ! Les élèves bilingues du cycle 3 du secteur du collège Errobi se sont retrouvés pour une matinée jeu de l'oie géant en langue basque.

L'année se termine déjà et les élèves ont participé à la **fête des écoles** le vendredi 24 juin, à Atharri. Exposition, danses, chants, théâtre, jeux, repas et **pintxo préparés par les élèves** ont été très appréciés !

Bonnes vacances !



arrokagarai ikastola

Haurrek ateraldi ederrak eta burrasoek etorkizunaren grina
les enfants ont profité de belles sorties et les parents
organisent l'avenir.

Ikasturte bukaera huntan, ekainean zehar, gure ikasleek ateraldiak egin zituzten.

Arrosako bi etxaldetan gelditu ziren, bertan egiten zituzten mozkinetaz ohartzeko. Irungaraian, Maiteren laguntzarekin, gaztanberak egin zituzten.

Bitartean, Ohetako etxaldean Mizelek beste haur talde bati behi esnearekin gasnak nola egiten zituen erakutsi zielarik. Eskuak esnean sartu, jastatu, gaxura ikusi, gasna moldeetan zapatu, haurrak gogotik arizan ziren! Laborantxak baduela geroa herri huntan!

Adibide pollit horiek ikusirik, Kaiku Bordan gelditu zen autobusa. Magasin hortan hemen inguruan egiten diren mozkinak ikusi eta gaueko afariaren prestatzeko behar ginituenak erosi ginituen.

Haurrak laborari izaitetik, sukaldari bilakatu ziren!

Biharamunean, berriz ere gasna egiten aritu ziren. Ikastolako azken egunean pintxo batzuen barnean jastatzen ahalko ditugu. Buraso ta haur guzietan horiek partekaturik, pozik eta aseturik joanen gira bakantzetara.

Heldu den irailerrate!

Artikulu hau idazten ari giren momentu berean, gure ikasle zaharrenak Ziburun ditugu, arrantzale batekin, itsasoan ditugun altxorren ezagutza egiten...

L'année scolaire se termine avec des sorties scolaires aussi gourmandes qu'instructives.

En effet, Maite de la ferme Bisconde Irungaraia à St Martin d' Arrosa, a accueilli les enfants de 5 à 7 ans pour montrer la fabrication « des gaztanbera », tandis que Mizel de la ferme Oheta a permis à d'autres de suivre avec attention les différents étapes de la fabrication d'un fromage.

Difficile de résister à la tentation de plonger ses doigts, mais bien sûr la dégustation venait à point nommé clore la séance !

Pour terminer, une halte à Kaiku Borda nous a permis de faire le tour des productions locales et de choisir de quoi nous préparer un bon dîner le soir-même.

Et le lendemain, « nos fromagers en herbe » n'ont pas manqué de suivre leur apprentissage en fabriquant à leur tour des petits fromages avec l'aide de Mari Michelle Aire.

Nous les goûterons avec les parents dans des pintxos préparés par les enfants pour l'apéritif de fin d'année.

Alors que nous écrivons cet article, nos plus grands sont de sortie à Ciboure, ils font la rencontre avec un pêcheur qui leur livre tous les trésors de nos océans....



Arrokagarai ikastola dinamika onean da, 94 ikasle kondatuko ditugu ondoko sartzearan.

Kopuruak goiti joan baitira azken urte hauetan baldintzak konplikatu ziren. Ondorioz 2020ko sartzetik goiti, arrokagarai ikastola itsasuarreri mugatua izan da SEASKA-karen baimenarekin. Luhuso eta ondoko herrientzat konboko ikastolarat bideratuak dira.

Baldintzen hobetzeko lehenik algeko batzuk instalatuak izan dira. Bainan ez zen aski. Gaur egun eskola publikoaren gela bat baliatzen dugu eta eskertu nahi ditugu. Nahiz eta baldintza horiek ez diren luzarako aterabideak, orain ekipa eta ikasleak baldintza onetan lan egiten ahal dute.

Horrez gain burrasoen elkarteak aktibo izan nahi du herrian. Zoritxarrez klima aldaketaren gatik gure azken ekitaldi ezeztatzer behartuak izan gira. Ekain erdiko bero handien gatik hirukasko ez dugu egin. Eskertzen ditugu gualdia hortan sustengatu gaituzten guziak.

L'ikastola Arrokagarai est sur une bonne dynamique ces dernières années et nous aurons 94 élèves à la rentrée prochaine.

Les effectifs n'ont cessé d'augmenter et les conditions d'accueil commençaient à se dégrader. Par conséquence à partir de la rentrée 2020, en accord avec SEASKA, nous avons restreint l'accès aux seuls habitants du village. Les élèves de Louhossoa et des villages voisins sont redirigés vers l'ikastola de Kanbo.

Pour améliorer la situation, une classe dans des algeco a été installée. Mais cela ne suffisait pas. Aujourd'hui nous occupons également une classe de l'école publique et nous les remercions pour leur coopération. Bien que ces conditions restent provisoires, l'équipe et les élèves peuvent actuellement travailler dans de meilleures conditions.

Les parents d'élèves ont vocation à être actifs dans le village. Malheureusement nous avons été contraints d'annuler notre dernière manifestation, hirukasko à la suite de la vague de canicule. Nous remercions tous ceux qui nous ont soutenus lors de cette soirée du 18 juin.



burrasoek, laguntzaileek eta langileek bizi arazten dute Lekuonean

Bere hamar urteak ospatuko ditu Itsasuko haurtzaindegiak eta estakuruaz balia haurtzaindegian ibili diren 170 familiak gomit izanen dira uztailaren 22 Sanoki gelan ospatuko den elgarretaratze alai eta lagunkiroratzat. Ostiral aratseko gaualdi hortan bilduko eta kurutzatuko dira Lekuonean haurtzaindegia bizi arazten duten guziak : bolondresak, burrasoak, langileak, hautetsiak eta haurrak. Izen emaitzak haurtzaindegian berean

Haurtzaindegiak eskertu nahi du Herriko Etxea besta egun horrentzat eman dion diru laguntzarentzat.

